

Gure ideia **LIBURUGRAM** izeneko aplikazio bat sortzea da. Aplikazio honen helburua irakurtzeko zaletasuna zabaltzea eta liburuak apalean eduki ordez, hauei erabilera bat ematea da. Horretarako, aplikazioan liburuak saldu edota erabiltzaileen artean trukitzea eskainiko dugu (azken hau, ulergarria den bezala, doanik izango da, 250km-ko distatziaren azpitik).

Aplikazioak liburu trukea eskaintzeaz gain, hauei buruzko gomendioak ere emango ditu, hau da, zure zaletasunen arabera liburuak gomendatuko dizkizu eta hauek irakurri ostean iruzkintzeko aukera egongo da. Gainera, liburuaren eguna edo antzeko festetan eskaintza edo beherapenak egingo ditu, bezeroak erakarri nahian. Aplikazioarekin lortu nahi duguna jendeak liburuak irakurri aurretik honi buruzko iritziak irakurtzeko aukera izatea da, zalantzak argitzeko asmoz. Gainera aplikazioko gomendioen bitartez gustuko liburu bat bilatzeko lana erraztuko dugu.

Finean, gure ideia "intsagram" bezelako aplikazio bat sortzea da, baina liburuak oinarritzat ditugula.